


Alemania-ko elizak



a. joxe azurmendi

Alemania-ra etorri aurretik amaika gauza entzun nuen eliza protestanteen tristorari buruz. Beraz, asko arritu naiz olakorik ezer etzela ikustearekin. Arkitekturen aldetik, beifnepein.

Arantzazu-ko eliza gustatzen etzitziaion zenbaiten arrazoia ere auxe bera izan oi zen: arrizko orma zahar oriek larru gorrian dituela, irudirik batere gabe, protestante eliza dela pentsatuko litzake. Utzi dezagun protestante itxurarik ala ez, Arantzazu-ko eliza ez ote dagon eder asko dagon gisan. Nundik sortua ote degu, ordea, esaera au? Danetik daukate protestanteak ere: imajina gabeak eta baita makifia bat imajina ederrez ornituak ere.

Protestanteen eliza zaharrik geienak, edo denak, katoliko izandakoak dira. Eta protestanteak artearekiko begirune txalogarri batez jotaku zutela esan bear dugu: etzuten irudirik txikitu, ez, pentsatzen den bezala.

“Protestanteak ikonoklasta itxu ziren kontua, luterotarrak elizak apurtu beste zereginik etzuten ipuia espafiolak bakarrik sifistu duzute”, esan zidan norbaitek Paderborn-en.

Alemaniaz diot au. Ondotxo baitakigu kalbinotarrak, amorratuagoak izaki, gogorragoak izan zirela onetan ere. Kalbino-k etzuen irudirik baztarretan ikusi nai. Eta oek bai, oek egin zuten ma-kifia bat barrabaskeria eta txikizio, Frantzian bareziki. Baiña Alemanian (ez dago Alemania osoa ezagun ez dudala esan bearrik, noski) eliza gotiko paregabeak dauzkate gure luterotar anaiak. Soest-en, esate baterako, Hansa-ko katolikoak eraiki zituzten bezalaxe dau-de, beren sagrario ta guzti. Utsik, noski, sagrarioa: aientzat Eukaristiaren adoratzeko ez du izateko arrazoirik-eta.

Alemania-ko elizetan benetako ondamendiak, izugarriak, azkenengo gerran egin ziren. Biotzean artearen estimazio apur bat duten alemanek, amerikanoak ezin izango zituztela ikusi uste nuen nik. Ez da orrelakorik. Münster-en irakasle batekin suertatu nintzan. Eta, alajainkoa!, euskeraz agurtu ezezik pozik erakutsi zidan erri osoa. (Münster-en euskera katedraren bat egon bear du). Gotiko erreberri-tuen mixeria ikusiaz, alako deabrukeria zitalik nola egin zitekean galdetu nion: artezko sorkari zoragarri oek purrukatzea ze kaskarretan kabitzen da! Ezin al zuten jolas oberik asmatu amerikanoak?

—Gerrak bere legeak dauzka, erantzun zidan tris-

turaz. Eta oraingoan guk eman genituen legeak. Hitler-en gudariak torre orietan zeuzkaten observatorioak, eta sarritan defentsak ere bai. Oriek eratxi beste erre-mediatorik etzagoen gerra irabaziko bazen.

—Ori gabe ere Amerikak garaipena eskuan zeukala esango nuke nik, osteratu nion.

—Bearbada bai, baiña urte bat edo bitan luzatuko zen gerra. Eta bai amerikanoak eta bai guk lenbailen buka zedilla bear genuen.

Gerrak bere legeak ditu. Esate onen beste lekuko bat agertu zitzaigun: Münster-go eliza baten torrean, buruzko kaiola aundi batzuek. Aundi txorientzat, txikitxoak ordea gizonendako. Txorienak ez baiño gizonen kaiolak ziren, izan ere, ikusten nituenak. An eduki zituzten preso anabaptista famatuak. Kondaira lekuko, ezagun ditugu anabaptistaok, Jainkoaren izenean, egindako kirtenkeriak. Izar gorriak ikusi bear izan zituzten katolikoak aien azpian. Nagusitu zirenean orratio, etzuten katolikoak ere Jaungoikoaren judizioari itzaroteko astirik izan. Etzieten purgatorio makala probatu eragin anabaptisteri: An euki zituzten torrekoi kaiolan otzak, euriak eta goseak zimurtu zitzan artean.

Ez ote da gizona Espiritu

Santuaren eliza? Eliza, bai, ta zerbait geiago ere. Baiña gerraren gorrian artea ezezik errez ahazten da Espiritu Santua bera, nurbait.

“Zitalkeria alemana”, esan nion nire gidatzaileari, kaiolak eskuarekin seinatatuaz. Eta berak, irribarrez: “ez ote zitalkeria kristaua?”

XVI-garren eunaldian Alemania-ko (Europa-ko) fedeak sofritu zuen etenak ondorengo beltzak ekarri ditu. Nunai ikus ditezke arriak erdibituta: luterotarrak eta katolikoak nahasian bizi dira. Onekin lehenago katoliko ziren elizak bi kredoan artean banatu zituzten. Soest-en, antxiña frantziskotarren komentu zena gaur luterotarren seminario da. Erri polit onetan bertan, eliza protestante bat esku-ratzeko eskubidea iritxi zuen katolikoan komunidadek. Naiago izan zuten, alare, berria egin.

Ba nentorren kalean bera, Attendorf-en, eta gutxien uste nuenean euri zaparradak arrapatu ninduen. Aterperik egokiena ta urbilekoe-na eliza protestantea irudititu zitzaidan eta ara jo nuen. Itxita. Aste osoan itxita dago: igande goizean, elizkizunetarako bakarrik, iriki oi da. Aste bitartean ura ez da gizonari debekatuta, itxita dagokion Jainkoaren presondegia baizik. Eurpean segitu nuen. Ba dute eliza protestanteak arkitekturarena ez den beste tristurarik...